



HONDARRIBIKO UDALA

**Europako 2006/115/CE Zuzentaraua garatzeko 624/2014 Errege Dekretuak liburutegi publikoek maileguarengatik ordaindu beharreko kanona dela eta udal gobernu taldearen idatzia:**

Aipatutako Errege Dekretuak jasotzen dituen egile eskubideak aintzat hartu beharrekoak direla ukaezina bada ere, testu horrek zerbitzu publikoen garapenean eragin kaltegarria izan dezakeela ere begien bistakoa da, zerbitzu publikoen aurrekontuetan jasan beharko baita.

Neurri hori orokorra, sistematikoa eta garaiz kanpoko da, gainera, ez ditu hainbat errealitate kontuan hartzen. Izan ditzakeen ondorio guztietatik, hala ere, nabarmendu beharrekoa da liburutegiek funts berriak erosteko duten dirua gutxitzea ekar dezakeela dekretu honek, liburutegietako partidak handitzen ez badira, behintzat.

Hori dela eta, leungarri gisa udalek Eusko Jaurlaritzarekiko modu koordinatuan hausnarketa egiteaz gain, neurri zehatzak hartzea ezinbestekoa izango da.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako proposamenok egiten ditu udal gobernu taldeak:

1. Hondarribiko Udala ez dator bat liburutegi publikoek Errege Dekretuak dakarren kanona ordaintzearekin.
2. Hondarribiko Udalak bat egiten du Eusko Jaurlaritzarekin Errege Dekretuaren eragina gutxitzeko adierazi dituen neurriekin, bereziki, liburuak erosteko kofinantziazioan Eusko Jaurlaritzaren laguntzen portzentajea handitzearekin.
3. Hondarribiko Udalak liburutegi zerbitzurako funts berriak erostea ezinbestekotzat jotzen du herritarrei zerbitzu egoki eta eguneratua eskaintzeko, hori dela eta, aurrerantzean ere funts berriak erosteko diru-kopuruari eutsiko diola hitz ematen du.